

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

48

AGINDUA, 2021eko abenduaren 13koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die, errendimendu-maila eta sailkapena ikusita, euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorriz, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi-mailako epaileen izaera, berriz, honako hauei: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Ebaluazio Batzordeak 2021eko azaroaren 25ean egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioak agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, denek beronen berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 13a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2022ko urtarrilaren 5a, asteazkena

I. ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Abizenak, izena	Espediente zk.	Modalitatea	Oharrak
Azanza Zabaleta, Haritz	872/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Azurmendi Moreno, Clara	851/21/D	Badminton	Kirolaria
Carte Echeverria, Ane	866/21/D	Hockeya	Kirolaria
Casado de la Fuente, Lucia	876/21/D	Hockeya	Kirolaria
Crespo Sistiaga Joan	868/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
De Miguel Prieta Ángela	877/21/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Echaniz Pal, Pau	869/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Errandonea Fernandez de Barrena, Teresa	884/21/D	Atletismoa	Kirolaria
Fernández Ruiz, Lucia	879/21/D	Padela	Kirolaria
Gana Fernandez, Irene	848/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Garate Lecertua, Laura	875/21/D	Hockeya	Kirolaria
García Aguirrezabal, Mikel	888/21/D	Kirol egokitua	Kirolaria
García Zabalegui, Nerea	867/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Goñi de Virgala, Leire	852/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Gutierrez Marrodan, Malen	855/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Huegun Barrena, Ainhoa	865/21/D	Hockeya	Kirolaria
Imaz Hosteins, Markel	853/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Jainaga Larrea, Odei	880/21/D	Atletismoa	Kirolaria
Lacunza Elizalde, Irati	881/21/D	Urpeko jarduerak	Kirolaria
Lazcano Guimerans Maria Begoña	878/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Lopez Aguirreurreta, Nora	859/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
López Pla, Francisco Javier	886/21/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Madariaga Iza, Victoria	864/21/D	Hockeya	Kirolaria
Mardones Iza, Mikel	856/21/D	Gimnasia	Kirolaria
Martinez Anasagasti, Garoa	892/21/D	Halterofilia	Kirolaria
Montejo Gago, Ohiane	885/21/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Murgoitio Esparza, Gontzal	863/21/D	Mendia	Kirolaria
Ochoa Torres, Ariane	858/21/D	Surfa	Kirolaria
Odriozola Echaniz, Maite	854/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Odriozola Frisch, Kai	890/21/D	Surfa	Kirolaria
Olazabal Sanchez, Clara	873/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Rivero Fernandez, Higinio	874/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Soto Fernandez, Bruno	861/21/D	Halterofilia	Kirolaria
Vilallonga Goicoechea, Juan Bosco	871/21/D	Hockeya	Kirolaria
Carreto Amantegui, Txema	133/21/T	Piraguismoa	Teknikaria
Cid Pardo, Ramon	125/21/T	Atletismoa	Teknikaria
Diez Lizarribar, Ander	127/21/T	Piraguismoa	Teknikaria
Garcia Feijoo, Jose Antonio	128/21/T	Atletismoa	Teknikaria
Libano Salas, Iker-Ekaitz	126/21/T	Piraguismoa	Teknikaria
López Carazo, Sergio	129/21/T	Kirol egokitua	Teknikaria
Ruiz de Azua López de Arroyabe, Iñigo	132/21/T	Halterofilia	Teknikaria
Saies Sistiaga, Ekaitz	131/21/T	Piraguismoa	Teknikaria

2022ko urtarrilaren 5a, asteazkena

Abizenak, izena	Espediente zk.	Modalitatea	Oharrak
Soto Carazo, Bruno José	124/21/T	Halterofilia	Teknikaria
Villate Martinez, Aitor	30/21/J	Futbola	Epailea